

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
• Otsailean erregistratuko langabeak 21.655 izan ziren Bilbon; hau da, kopurua jaitsi egin da. • Bilboko enpresetan afiliatutako langileen kopuruak gora egin du aurreko hilabetearekin alderatuta (% 0,5), eta 185.391 pertsona gehitu dira. Erregistratutako kontratuak –% 25,1 murriztu dira urte batetik bestera, eta kontratuen % 92 zerbitzuen sektorekoak izan dira. • Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 0,5eko igoera izan dute. • Bilboko jarduera turistikoak gora egin du otsailean, urte arteko terminoetan, bai ostatu-gauetan (–% 46,8), bai bidaiari-kopuruan (–% 31,8). • Bizkaiko BPGd-ak urte arteko % 3,0ko gorakada izan du 2022ko laugarren hiruhilekoan (% 4,5 ere bai 2022ko urte osorako). • Bilboko aireportuak 348.667 bidaiari erregistratu ditu otsailean. Hau da, urte arteko % 63,9ko gehikuntza egon da. • Bilboko Portuak 2,42 milioi tona erregistratu ditu otsailean % 11,6ko igoera aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.		Azken datua	Δ Urte artekoa (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	185.391	0,5*	ots.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.655	-0,4*	ots.
	Erregistratutako kontratuak	9.318	-25,1	ots.
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea (2015. urtea= oinarria 100)	103,1	0,5	ots.
	Turismoa			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	70.976	31,8	ots.
	Ostatu-gauak (kop.)	135.535	46,8	ots.
	Ekonomia eta enpresa			
	Bizkaiko BPGd (2015.urtea= 100 oinarria)	113,5	0,1*	22ko 4. HH
	Garraioa			
	Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	348.667	63,9	ots.
	Salgaien itsas garraioa (milioi tona)	2,4	11,6	ots.
Hiriko garraioa eta metropoliko garraioa (milioi bidaiari)	104,5	18,5	2022	

DATU BAT

Urte arteko **% 3,0**
BPGd Bizkaia

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Otsailean 96 langabe gutxiago erregistratu dira; horrek esan nahi du hilabete arteko $-0,4\%$ ko murrizketa izan dela, eta 21.655 langabe daudela udalerrian.

Emakumeen langabezia jaitsi egin da ($-0,2\%$): 23 langabe gehiago. Gizonak, ordea, behera egin du ($-0,8\%$): 73 langabe gutxiago.

Adin-taldeen arabera, 16 eta 24 urte bitartekoek soilik egin dute gora, $5,0\%$ (85 langabe gehiago). 25-44 urteko taldeak 76 langabe gutxiago ditu ($-1,0\%$), eta 45 urte eta gehiagokoek 105 gutxiago ($-0,9\%$).

Langabeziak behera egin du sektore guztietan. Zerbitzuetan 88 langabe gutxiago ($-0,6\%$), industrian 19 ($-2,6\%$), eraikuntzan 14 ($-1,0\%$) eta lehen sektorean 7 gutxiago ($-1,8\%$).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu handienetan (G-5), langabeziaren bilakaerak $0,6\%$ ko gorakada izan du aurreko hileko datuen aldean. Taldeko hiriburuaren joera ez da parekoa izan. Madrilen eta Bartzelonan gora egin dute langabeen kopuruak, eta Valentzian, Sevillan eta Zaragozan, berriz, behera.

Euskal hiriburuaren taldean (G-3) langabeziak $0,4\%$ egin du gora. Langabeziak gora egin du Gasteizen ($1,2\%$) eta Iruñean ($0,4\%$). Behera egin du Donostian, $-1,3\%$.

Hiru lurraldeetan egin du behera ($-0,5\%$), zehazki, $-1,0\%$ Araban, $-0,8\%$ Gipuzkoan eta $-0,3\%$ Bizkaian.

Afiliatuak

Otsailaren amaieran 185.391 afiliatu erregistratu ziren Bilboko enpresetan, hau da, urtarrelean baino 848 gehiago ($0,5\%$).

Erregimenen arabera, afiliazioak gora egin du Orokorrean (808 enplegu eta $0,5\%$), Etxeko langileenean (45 eta $0,7\%$) eta erregimen berezietan (nekazaritza eta itsasoa), 30 enplegu ($4,6\%$). Langile Autonomoen Erregimenak baino ez du afiliazioa murriztu (35 afiliatu gutxiago eta $-0,2\%$ hilabete artean).

Sektore guztiak hazi dira afiliazioan: Zerbitzuetan 825 afiliatu gehiago ($0,5\%$), industrian eta eraikuntzan ($0,1\%$ bi kasuetan) eta lehen sektorean ($0,8\%$).

Zerbitzuetan, igoerak nabarmentzen dira ehunekotan: jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak, $1,6\%$ eta 232 afiliatu gehiago; ostatuak, $1,5\%$ eta

Erregistratutako langabeak

Hilabete arteko Δ

Otsaila	21.655 pertsona
	$0,4\%$ ▼
Emakumeak	$0,2\%$ ▼
Gizonak	$0,8\%$ ▼

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	$0,4\%$ ▼
G-5	$0,6\%$ ▲
G-3	$0,4\%$ ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete arteko Δ

Otsaila	185.391 pertsona
	$0,5\%$ ▲
Araubide Orokorra	$0,5\%$ ▲
Autonomoak	$0,2\%$ ▼
Etxeko Sistema Berezia	$0,7\%$ ▲
Beste batzuk	$4,6\%$ ▲

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete arteko Δ

Zerbitzuak	$0,5\%$ ▲
Eraikuntza	$0,1\%$ ▲
Industria	$0,1\%$ ▲
Lehen sektorea	$0,8\%$ ▲

25 afiliatu gehiago; ostalaritzak, % 1,1 eta 110 gehiago; gizarte zerbitzuek, % 1,0 eta 95 afiliatu gehiago. Laneratzeak ere gora egin du hezkuntzan (% 0,9 eta 221 gehiago). Behera egin du, hala nola osasunean (50 afiliatu gutxiago), finantza- eta aseguru-zerbitzuetan (21 gutxiago) eta merkataritzan (24 gutxiago).

Urte artean enpleguak % 1,7ko gorakada izan du, hau da, 3.062 afiliatu gehiago. Urtetik urtera, nabarmentzekoa da Langile Autonomoen Erregimen Bereziko afiliazioak behera egin duela (–% 1,7 eta 386 gutxiago), hamabost hilabetez jarraian murrizketak izan ondoren.

Sektoreen arabera, zerbitzuek 2.766 afiliatu batu dituzte (% 1,7), industriak 289 (% 3,5) eraikuntzak 169 (% 1,9). Zerbitzuetan urte arteko gorakada nabarmendu da ostatueta, ostalaritzan, informazioan eta komunikazioetan, aisialdian eta kulturen eta hezkuntzan (% 13,5, % 6,3, % 6,2, % 4,6 eta % 4,2 gehiago, hurrenez hurren).

Benchmarkina. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 0,7ko gorakada islatu du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztiek gora egin dute afiliazioari dagokionez. Valentziak izan du igoerarik esanguratsuenak (% 0,9).

G-3ko hiriburueta, afiliatuen kopurua, batera hartuta, % 0,4 igo da. Donostian % 0,5 eta Gasteizen % 0,6 hazi dira. Iruñean baino ez da murriztu, –% 0,1.

EAEn, orokorrean, % 0,5 egin dute gora afiliatuek. Afiliazioak gora egin du Bizkaian (% 0,4), Gipuzkoan (% 0,6) eta Araban (% 0,5).

Benchmarkina

Hilabete arteko Δ

Bilbo	% 0,5 ▲
G-5	% 0,7 ▲
G-3	% 0,4 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Otsailean 9.318 kontratu sinatu ziren Bilbon; hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 3.123 kontratu gutxiago sinatu dira, –% 25,1 aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. (Aintzat hartu beharra dago 2022ko otsailarekin alderatu dela, hau da, Lan-erreformarako premiazko neurrien 32/2021 Errege Lege-dekretua aplikatu aurretik).

2022ko otsailarekin alderatuta, gizonei eta emakumeei egindako kontratuak behera egin dute, 1.475 eta 1.648 gutxiago, hurrenez hurren. Adin-tarteen arabera, 25 eta 44 urte bitarteko pertsonen dagokie erregistratutako kontratuen % 51,5 (4.800 kontratu); % 29,5, berriz, 45 urtetik gorakoei (2.749), eta gainerako % 19 25 urtetik beherakoei (1.769).

Sektore guztietan jaitsi dira kontratuak: zerbitzuetan (2.852 kontratu gutxiago), industrian (165 gutxiago), eraikuntzan (102 gutxiago) eta lehen sektorean (4 gutxiago).

Zerbitzuen arloan, datu absolutuetan, honako arlo hauetako kontratuen jaitziera nabarmentzen da: garraioa eta biltegiratzea (598 gutxiago), eta osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak, administrazio-jarduerak,

Erregistratutako kontratuak

Urte arteko Δ

Otsaila	9.318 pertsona
	% 25,1 ▼
Emakumeak	% 23,4 ▼
Gizonak	% 27,4 ▼
Lehen sektorea	% 19,0 ▼
Industria	% 30,8 ▼
Eraikuntza	% 23,7 ▼
Zerbitzuak	% 24,9 ▼
Kontratutako pertsonak	% 19,3 ▼

ostalaritza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (576, 560, 517 eta 509 gutxiago, hurrenez hurren). Kontratuen gorakada nabarmena egon da, besteak beste, informazio eta komunikazioetan eta hezkuntzan, 299 eta 116 gehiago, hurrenez hurren.

Kontratazio-esparru berriarekin, % 27,3 egin dute gora kontratu mugagabeek. Aldi baterako kontratuak guztien % 70,9 izan dira. Urtarrilean 7.088 pertsona kontratatu dira, eta % 57,5 emakumeak izan dira. Kontratu-txandakatzearen indizea hau da: pertsona bakoitzeko 1,31 kontratu.

MERKATARITZA

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 0,5eko igoera izan dute otsailean, lan-egutegiko termino homogeneotan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 1,4 jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentek % 0,2 egin dute gora 2022ko otsailarekin alderatuta, eta gainerako produktuei dagozkionak % 1,1 handitu dira aldi berarekin alderatuta.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 2,4ko gorakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban (-% 6,1) eta Gipuzkoan (-% 0,1). EAEn, orokorrean, -% 0,6 egin dute behera.

TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduek 135.535 gaualdi erregistratu dituzte otsailean. Aurreko urteko hil berean baino 43.213 gehiago zenbatu dira (% 46,8).

Bidaia-ien sarrerak neurri txikiagoan egin du gora (% 31,8). Estatuko bidaia-ien kopuruak gora egin du, baita atzeritarrenak ere.

Estatukoak hiribilduko hoteletan ostatu hartu duten bidaiari guztien % 66,1 izan dira, eta % 19,6ko gorakada izan dute. Atzeritarrak % 64,4 egin dute gora 2022ko otsailari dagokionez.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako estatuko bidaiariei dagokionez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugariak (% 24,8), gero EAEkoak (% 14,9), Kataluniakoak (% 12,3) eta Andaluziakoak (% 11,6).

Saltoki handiak Bizkaia

Urte arteko Δ

Otsaila	103,1
Salmenta-indizea	% 0,5 ▲
- Elikadura	% 0,2 ▲
- Gainerako produktak	% 1,1 ▲
Landunak	% 2,4 ▲

Ostatu-gauak

Urte arteko Δ

Otsaila	135.535 ostatu-gau
	% 46,8 ▲
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 43,5 ▲
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 58,7 ▲

Bidaia-ien sarrera

Urte arteko Δ

Otsaila	70.976 sarrera
	% 31,8 ▲
Nazionalak	% 19,6 ▲
Atzeritarrak	% 64,4 ▲

Batez besteko egonaldia

Urte arteko Δ

Otsaila	1,91 ostatu-gauak/bidaia-ia
	% 11,7 ▲

Sektorearen errentagarritasun adierazleak

Urte arteko Δ

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 15,9 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 62,4 ▲

Atzerriko bidaiariei dagokienez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugariak: Frantzia (% 20,8), Portugal (% 9,2), Alemania (% 9,1), Erresuma Batua (% 9,0) eta Herbehereak (% 5,8).

Batez besteko egonaldia 1,91 ostatu-gau izan da bidaiari bakoitzeko.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak 51,6 eurokoak dira, % 62,4 gehiago urte artean

Benchmarkina. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, urtetik urtera % 15,7 hazi da eta. Gora egin dute Gasteizen (% 34,8), Donostian (% 12,0) eta Iruñean (% 5,1).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 26,9ko gorakada izan dute. Multzo horretako hiriburu guztietan areagotu da ostatu-gauen kopurua. Bartzelonan egon da gorakadarik altuena (% 40,8).

Benchmarkina

Urte arteko Δ

Bilbo	% 46,8 ▲
G-5	% 26,9 ▲
G-3	% 15,7 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

EKONOMIA

BPGd

Bizkaiko barne produktu gordinak urte arteko % 3,0ko gorakada erregistratu du 2022ko laugarren hiruhilekoan. Euskal ekonomian, orokorrean, % 2,9 egin du gora.

Bizkaiko ekonomiak ondoz ondoko hamar hiruhilekotan egin du aurrera BPGd-an, hiruhileko arteko terminoetan, 2020ko bigarren hiruhilekoan izandako beherakada handiaren ostean.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,1 igo da eta, ondorioz, hazkundea txikia izan da aurreko hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta (% 0,6). Bestalde, EAEren hazkundea % 0,5koa izan da.

Euskadi osorako, oro har, hauexek dira hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan duten sektoreak: industria % 2,4 hazi da, eraikuntza % 1,4 eta zerbitzuak % 0,3. Lehen sektoreak behera egin du: -% 13,3.

2022. urteko balantzea 2022. urtean Bizkaiko BPGdaren bilakaera positiboa izan da % 4,5 (% 6,0, 2021ean).

EAEko BPGda % 4,4 hazi da 2022. urtean (% 5,9 2021ean). Sektore handi guztietan erregistratu dira gorakadak: % 0,8 lehen sektorean, % 2,0 eraikuntzan, % 4,6 industrian eta % 4,7 zerbitzuetan.

Zerbitzuetan, merkataritza, ostalaritza eta garraioa azpisektorea % 10,7 hazi da; administrazio publikoarena, hezkuntzarena, osasunarena eta gizarte-zerbitzua % 1,8, eta gainerako zerbitzuak % 2,8.

Barne-produktu gordina Bizkaia

IV. hiruhilekoa

Urte arteko Δ	% 3,0 ▲
Δ Hiruhileko artekoa	% 0,1 ▲

Hiruhilekoko BPGd-a (milioi €)	9.818,3
---------------------------------------	---------

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 348.667 bidaiari erregistratu ditu otsailean; beraz, urte arteko % 63,9ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 135.999 bidaiari gehiago). 2019ko otsailari dagokionez, % 0,8 igo da bidaiari kopurua.

Igo egin dira estatuko hegaldietan izandako bidaiariak (75.244 gehiago urte artean, % 46,6), eta indartsuago nazioartekoetan (% 120,5 hazi dira, eta 60.706 bidaiari gehiago egon dira).

Hilean zehar egindako hegaldiak, iritsieren eta irteeren artean, 3.075 izan dira (% 38,3), baina garraiatutako merkantziak igo dira (% 37,0).

Aurten, dagoeneko 688.508 bidaiari lortu dira Bilbon; hau da, aurreko urteko epe berean baino % 73,9 gehiago izan dira, 292.699 bidaiari gehiago, alegia.

Benchmarkina. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 48,7ko igoera kontabilizatu da. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gorakada handia izan du.

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 34,8 handitu da. Hiru aireportuetan gorakadak egon dira bidaiarien kopuruan.

Aireko garraioa

Urte arteko Δ

Otsaila	348.667 bidaiari
	% 63,9 ▲
Nazionalak	% 46,6 ▲
Nazioartekoak	% 120,5 ▲
Salgaiak (kg)	% 37,0 ▲
Hegaldiak	% 38,3 ▲

Benchmarkina

Urte arteko Δ

Bilbo	% 63,9 ▲
G-5:	% 48,7 ▲
G-3:	% 34,8 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 2,4 milioi tonako trafikoa izan du otsailean, hau da, % 11,6 gehiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan otsailean kudeatutako salgaien % 62,1 izan da, eta urte arteko % 28,9ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoak -% 7,8 egin zuen behera (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorrek -% 9,1.

Bidaiarien itsas garraioan, 2.208 bidaiari zenbatu dira hilabetearen amaieran.

Otsailean ez da itsas bidaiei lotutako jarduerarik erregistratu.

Itsas garraioa

Urte arteko Δ

Portuko trafikoa	2,42 milioi tona
	% 11,6 ▲
Bidaiariak garraiatzea	2.208 bidaiari
	% 38,6 ▲
Itsas bidaiariak (kop.)	0

Hiri- eta metropoli-garraioa

2022. urteko balantzea 2022. urtean Bilboko hiri- eta metropoli-garraioetako erabiltzaileen kopurua (Metro Bilbao, Bilbobus eta EuskoTran), guztira, 104,5 milioi bidaiarira heldu zen; beraz, % 18,5 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Nolanahi ere, urteko datu horrek esan nahi du 2019an erregistratutako bidaiari-trafikoaren % 87,5 berreskuratu dela.

Metro Bilbaok bidaiari guztien (80,4 milioi) hiru laurden jaso ditu, hau da, % 20,4ko igoera izan du urtetik urtera.

Bilbobusek bidaiarien bosten bat baino pixka bat gehiago ditu (21,5 milioi) eta % 11,1eko igoera erregistratu du.

EuskoTranen, bidaiarien kopurua % 27,2 handitu da, eta, guztira, 2,6 milioi bidaiari garraiatu ditu.

Hiri- eta metropoli-garraioa

Urte arteko Δ

2022	104,5 milioi bidaiari
	% 18,5 ▲
Bilbobus	% 11,1 ▲
Metro Bilbao	% 20,4 ▲
Eusko Tran	% 27,2 ▲

ADIERAZLEEN TAULA


	Azken datua	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.655	-0,4*	2023ko ots.
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	185.391	0,5*	2023ko ots.
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	9.318	-25,1	2023ko ots.
Biztanleria aktiboa (milakotan)	163,7	-2,8*	2022ko IV. HH
Biztanleria landuna (milakotan)	149,6	-2,2*	2022ko IV. HH
Langabeak (milakotan)	14,1	-9,0*	2022ko IV. HH
BAlko langabezia-tasa (%)	8,60	-0,62 p.p.*	2022ko IV. HH
Merkataritza			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	110,5	1,1*	2023ko ots.
Afiliatutako pertsonak**	19.154	-0,1*	2023ko ots.
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	120,2	2,8	2022ko IV. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	103,1	0,5	2023ko ots.
Turismoa			
Bidaarien sarrera	70.976	31,8	2023ko ots.
Ostatu-gauak	135.535	46,8	2023ko ots.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiaia)	1,91	11,7	2023ko ots.
Hoteletako okupazio-maila (%)	49,0	13,1 pp	2023ko ots.
Diru-sarrerak libre dagoen logelako ,(€)	51,6	62,4	2023ko ots.
Ekonomia eta enpresa			
Bizkaiko BPG (kateatutako bolumenaren indizea)	113,5	3,0	2022ko IV. HH
Industria produkzioa (indizea)***	105,1	-5,1	2023ko urt.
Merkataritza sozietate berriak	729	2,1	2022
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	118,3	5,9	2022ko IV. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m ²)	4.871,95	47,4	2022ko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m ²)	2.815,91	-3,8	2022ko IV. HH
Garraioa			
Bidaariak aire bidezko garraioa	348.667	63,9	2023ko ots.
Hegaldiak	3.075	38,3	2023ko ots.
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,42	11,6	2023ko ots.

* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. ** Bilboko enpresetan. *** Bizkaia dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, EINren, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatuak




Saltoki handiak eta elikagaien kateak



Hotel-gauak



BPGd Bizkaia



Aireportuko bidaiariak

